

EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAKO IKERKETA- TALDEEN JARDUERAK BULTZATZEKO DIRU- LAGUNTZAK 2022-2025

Aplikaziorako esteka: <https://www.ikerketa-taldeak.net/it2022/es>

Kontaktuak UPV/EHU-n:

<i>Ikertzaile nagusiek erreferentziako teknikariek harremanetan jarri beharko dute, atxikitze-campusaren arabera:</i>	BIZKAIako CAMPUS-a: convocatoriasbizkaia.dgi@ehu.es
	GIPUZKOako CAMPUS-a: convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.es
	ARABako CAMPUS-a: convocatoriasaraba.dgi@ehu.es

Deialdiaren egutegia UPV/EHU-n:

Urriaren 4an, 8:00etan: "I. eranskina" bidaltzea posta elektronikoz atxikitze Campus-aren arabera dagokion e-mail helbidera, talderako proposatutako langileen zerrendarekin, eta 2019-2021 epealdiko ikerketa-proiektu aktiboa identifikatzea, gutxieneko ekoizpen-baldintza betetzeko.

IN-ak kontuan hartu beharko du **eranskin hau loteslea dela**; izan ere, IaEk eskabide bakoitzean parte har dezaketen langileen zerrenda egin behar du, Eusko Jaurlaritzari aurkezteko. IN-ak proposatutako ekipoaren berrespena eta indarrean dagoen ikerketa-proiektu bat egiaztatze beharrezko ziurtagiria jasoko ditu (4.5.c artikulua).

Urriaren 19a: IN-ak sinatutako eskaera-inprimakia aplikaziora igotzeko gomendatutako epemuga (eskaera bete ondoren, taldeak sartutako datu guztiak biltzen dituen dokumentu bat sortuko da. IN-ak dokumentua inprimatu, sinatu eta aplikaziora igo beharko du).

Urriaren 21a: Eskaerak aurkezteko epearen bukaera.

Ikerketa taldearen betekizunak:

- **Gutxieneko taldea:**
 - 6 doktore.
 - Ikerketa-taldeko kide gehienek lan-ibilbide bateratua erakutsi beharko dute 2016tik eskaera-egunera arte.
- **Gutxieneko ekoizpena:**
 - **Argitalpenak:** Doktore bakoitzeko 2, 2016tik laguntza eskatu den egunera arte. Taldeak gutxienez % 10eko baterako argitalpenak frogatu beharko ditu.
 - **Tesiak:** 2016tik laguntza-eskaeraren egunera bitartean defendatutako 2 eta 5 tesi artean, taldeko doktore-kopuruaren arabera.

Taldearen tamaina (Doktore z.kia)	Tesiak
6-8	2
9-11	3
12-15	4
≥16	5

- o **Proiektuak:** Ikerketa-proiektu aktibo bat 2019-2021 epealdian, erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko lehia-deialdietan lortua. Betekizun hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko UPV/EHUko edo probintziako deialdi-proiektuak.

IN-en betekizunak UPV/EHU-ren eskaeretan:

- a. Doktore titulua.
- b. Lotura motak:
 - a. UPV/EHU-rekin funtzionario edo kontratu lotura iraunkorra izatea
 - b. Ikerbasque: Research Professor edo Research Associate.
 - c. UPV/EHU-CSIC unitate mistoak, BERC kategorian egiaztatuak: unitate misto horretako ikertzaileak, bi erakundeen arteko hitzarmeneko langileen eranskinean agertzen direnak. Unibertsitate eskatzailearekin kontratu-loturarik ez duten ikertzaile nagusiek hori duen eta 4. artikuluko 2.a. atalean jasotako baldintzak betetzen dituen Ko-IN bat sartu beharko dute.
 - d. Irakasle atxikiak eta irakasle ohi atxikiak, plaza iraunkor bat lortzeko lehiaketaren zain. 4. artikuluko 2.a. atalean jasotako betekizunak betetzen dituen Ko-IN bat sartzea beharrezkoa izango da.
 - e. Hautazkoa. Ikerketa-taldeak aukera izango dute 2.a ataleko betekizun guztiak betetzen dituen Ko-IN bat izateko, 2022-2027 aldirian IN-a erretiratu egingo dela aurreikusten bada eta betiere 1962 baino lehenago jaiotakoa bada.
 - f. Nahitaezko betekizuna izango da 2.a ataleko betekizunak betetzen dituen Ko-IN bat egotea 1956 baino lehen jaiotako IN bat buru duten taldeetan.
 - g. Halaber, Ko-IN bat izateko aukera izango dute Eusko Jaurlaritzak ikerketa-taldeei emandako dirulaguntzen 2016-2021 eta 2019-2021 aldiatarako deialdietan ziurtapena eskuratu zuten bi talderen fusiotik sortutako talde eskatzaileek. Kasu horretan, ikertzaile nagusi bana egongo da jatorrizko ikerketa-talde bakoitzeko.
- c. Kontratu iraunkorra eta dedikazio osoa.
- d. Deialdi honetako eskabide bakarrean agertu ahal izango dira.

Taldekieen betekizunak:

- Doktoreak edo ez-doktoreak izan daitezke.
- Ikertaldeko kide ez iraunkorrek Kontratua indarrean izan beharko dute, eta gutxienez laguntza gauzatzeko epearen erdia iraun beharko du; hau da, 2023ko abenduaren 31ra arte.
- Obra/zerbitzurako kontratatutako ikertzaileek deialdi honetan parte hartu ahaliko dute, beti ere beraien kontratuaren iraupenak hori ahalbidetzen badu.
- Bitarteko irakasle partzialek eta irakasle elkartuek, Osakidetzari lotutakoak izan ezik, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu.
- AZP-ek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu. (**Aldatutakoa**)
- Doktoretza aurreko kontratatutako tesi-zuzendariak ere parte hartzen badu bakarrik agertu ahal izango dira taldekide gisa eskabidean.
- Deialdi honetako eskabide bakarrean agertu ahal izango dira.

Taldetik kanpoko laguntzaileen betekizunak:

- Eskatzailea ez den beste erakunde bateko irakasle bisitariak eta/edo ikertzaileak izan ahalko dira.
- Eskabidean parte hartzeko, jatorrizko erakundearen idatzizko baimena beharko dute. Idazki horiek I. eranskinarekin batera aurkeztu beharko dira.

Dokumentazioa:

Dokumentua	IGORLE A	OHARRAK
Eskaera	IN	https://www.ikerketa-taldeak.net/it2022/es helbidean osatuko da.
Eskaeraren laburpena	IN	Online eskabidea bete ondoren sortzen da, eta IN-ak sinatuko du. Ondoren aplikaziora igo beharko du.
IN eta Ko-IN-aren CV-ak	IN	Edozein formatu normalizatutan aurkeztu ahal izango da. Aplikazioan erantsiko da.
Argitalpenak egiaztatzea	IN	Aplikazioan sartutako datuetatik abiatuta sortuko da. Ondoren, inprimatu, sinatu eta aplikazioan erantsi beharko da. Gainera, deialdiaren 4.6.a) artikuluan adierazitako dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da.
Tesiak egiaztatzea	IN	GAUR-etik deskargatutako dokumentu baten bidez egingo da, defendatutako tesiak eta abian daudenak ziurtatzeko. UPV/EHU ez beste erakunde batzuetan defendatutako tesiak egiaztatu nahi izanez gero, IN-ak erakunde horiei ziurtagiri bat eskatu beharko die, gutxienez datu hauek jasoko dituen: titulua, egilea, unibertsitatea, saila, data, helbidea eta kalifikazioa, nazioarteko tesia den ala ez adieraziz.
Ikerketa proiektua egiaztatzea	IaE	<u>Eskaera bakoitzeko proiektu bakarra egiaztatu beharko da</u> , nahiz eta aplikazioan ebaluaziorako adierazitako epealdian emandako proiektu guztien datuak sartu. IN-ak "I. eranskinean" adieraziko du egiaztatu nahi duen proiektua. Proiektu horren ziurtagiria IN-ari bidaliko zaio, taldeko kideen inguruan egindako berrikuspenarekin batera. Egiaztatu beharreko proiektua UPV/EHU ez den beste erakunde batekoa bada, IN-ak ziurtagiri bat eskatu beharko dio erakunde horri, gutxienez datu hauek jasoko dituen: proiektuaren titulua, ikertzaile nagusia, emandako diru-laguntza, erakunde finantzatzailea, erreferentzia eta indarraldia.

Aurrekontua egiteko jarraibideak:

Arau orokorrak:

- Eman beharreko zenbatekoa ezin izango da eskatutako aurrekontua baino handiagoa izan.
- Laguntzak ezingo du gainditu taldeak 2016 eta 2021 bitartean lortutako kanpo-finantzaketaren % 30 (taldeentzako laguntzen deialdiaz bestelako iturriak).
- Talde bakoitzari dagokion diru-laguntza lehiaketa-prozeduraren bidez zehaztuko da. Horretarako, arlo bakoitzean eskabide hautagarrien lehentasun-ordena ezarriko da, eta balorazio onena lortu dutenak esleituko dira, esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte:

Artea eta Giza Zientziak	3.280.000 €
Zientzia esperimentalak	16.800.000 €
Osasun-zientziak	6.720.000 €
Gizarte eta Lege Zientziak	6.380.000 €
Ingeniaritza eta Arkitektura	8.820.000 €

Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

	DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK	EZIN DIRENAK DIRUZ LAGUNDU
LANGILEGOA	<ul style="list-style-type: none"> - IPK doktorea - Doktore-aurreko kontratatuak - Ikerketan laguntzeko langilekoa 	Ikerketan laguntzeko langileen kontratazio-gastuak, baldin eta admi-nistrazio-lanak egingo badituzte.
MATERIAL INBENTARIAGARRIA	Ekipamendu txikia erostea, zientifikoa nahiz bibliografikoa. Ekipamendu horren unitate bakoitzak 20.000 eurotik behera balio behar du, BEZik gabe.	Informatika eta bulego ekipamendua.
BESTELAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Material suntsikorra - Taldearen nazioartekotzea sustatzeko jarduerak - Ikerkuntzaren prestakuntza- eta hedapen-jarduerak. - Espedizioak edo landa lanak - Azpikontratazioak - Ikerketa-zerbitzu orokorrak - Lan-planean sartu diren taldearen ikerketa-helburuekin zerikusia duen beste edozein gastu. 	